



Ilargian Kulunkantari: *Xabier Olaso*

Piktograma poetikoaren kontzeptuan oinarriturik, neska-mutikoei zuzenduriko kartoizko liburuak dira Ilargian kulunkantari bildumakoak. Errima eta erritmoa duten ikus-poema errezitagarriak dira.

Liburu bakoitza poema oso bat da eta tradiziozko kantutegiaren bitarteko poetikoak erabiltzen ditu: oihartzunak, errimak, onomatopeiak, anaforak... Baina, oroz gain, bada ezaugarri bat ezinbestean aipatu eta azpimarkatu beharrekoa: kantatzeko liburuak dira Ilargian Kulunkantari bildumako hauek guztiak. Edozein helduk egokitu diezaioke poematxoari kantatzeko doinua, neke handirik gabe, liburu bakoitzaren egitura hain da erraza! Doinua gertu izanda, ba, heldu horrek haurrari erakutsiko dizkio liburuaren piktogramak, kanta-kantari. Eta hori guztia memorizatzen erraz-erraza baita, haurra berehalakoan doinuaz jabetu eta, irudiak lagun, poema kantari hasiko da: “Bat, bat, bat ilargia bart/ bi, bi,bi, ilargi eta eguzki/ hiru hiru hiru arrainak tiruriru... Eta kantatu ahala gorputz-imintzioak eta keinuak eginez ere areago jantzi daiteke istoriotxoak.

Liburu bakoitza –poema bakoitza, alegia– proposamen irudimentsu eta originala da, gozatzeko eta ondo pasatzeko modukoa. Halaber, gaiak jorratzeko orduan, lehenengo adinen interesguneei lotzen zaizkie. BOST liburuan, esaterako, batetik bostera bitarteko zenbakiak ageri dira; KROKODILOA liburuan koloreak; MIAU liburuan hurbileko animaliak eta, orobat, ilargi magikoa ILARGIAN; musika-tresnak nagusi dira BIOLINAN; oinetakoen koloreak eta formak ZAPATAN; mahaia txukun atontzeko eraz ari da PAPER-TXORIA, eta eguneroko objektuak ageri dira ARBOLAN.

HELBURUA:

Ilargian Kulunkantari bildumako liburutxook zertan diren eta nola erabili behar diren azalduko du liburu hauek euskararen airera ekartzeaz arduratu den egileak berak.

NORI ZUZENDUA:

0-8 urte bitarteko haurren guraso, hezitzaile eta bitartekariei zuzendua.